Lehenik eta behin alkate jaunak aditzera eman du ez dela gauza normala aurrekontua maiatzean aurkeztea onartzeko, baina aipatu du horren arrazoia lehenengo eskarmentu falta izan dela, horrek bi hilabete inguru atzeratu duela gaia, eta bigarrenik, joan zen martxoan izandako hauteskundeak, horiek ere eragina izan baitute udal aurrekontua onartzeko egin diren gestioen ibilbidean. Jarraian esan du alderdi politiko batzuetako exekutiben jokoa aurrekontuaren inguruko adostasunak lortzeko aukera haustea izan zela, eta bere ustez gainera lortu egin zutela. Nolanahi ere, aipatu du bere obligazioa dela Udalbatzarrari onartzeko aurkeztea gobernu taldeak prestatu duen aurrekontua; gainera, ezagutu egin nahi ditu, eta ezagutzera eman, talde bakoitzak agiri honekiko dituen jarrerak. Era berean aditzera eman du onespena lortuko ez bagenu, ez genukeela inolako hondamendirik izango, izan ere legeak aurreikusiak ditu horrelako egoerak, eta

**3.- Presupuesto general 2008. Plantilla Orgánica: Relación de puestos de trabajo.**

El sr. alcalde indica, en primer lugar, que no es lo normal presentar el Presupuesto para su aprobación en el mes de mayo, pero señala que esto se ha debido, en primer lugar a la falta de experiencia que ha retrasado este asunto unos dos meses, en concreto hasta febrero, y en segundo lugar a la celebración de elecciones en marzo pasado, elecciones que han influido en la marcha de las gestiones para la aprobación del presupuesto municipal. Sigue diciendo que el juego de las ejecutivas de algunos partidos políticos trató, y a su juicio, consiguió romper la posibilidad de consensos a acuerdos sobre el presupuesto. No obstante señala que es su obligación proponer al Pleno para su aprobación el prespuesto elaborado por el equipo de gobierno, además de que quiere conocer y que se conozcan las posturas de cada grupo respecto a este documento. Asimisimo informa que en caso de que no se obtuviera la aprobación no estariamos ante ningún

kasu horretan aurreko ekitaldiko aurrekontuaren luzapena egingo litzateke; bitxia bada ere, aurreko ekitaldiko aurrekontua zenbakitan haundiagoa da orain onartzeko aurkeztu den aurrekontua baino.

Jarraian esan du gobernu talde honen lehen aurrekontua dela, eta aditzera eman du diru gastua diru sarrera baino haundiagoa ez izatea nahi izan dutela, eta beraz zorretan ez sartzea. Aipatu du baita ere aurrekontu honek agertzen duela hirigintza planeamendu berria onartu gabe dagoela, izan ere ez baitago inbertsio haundirik; bere iritziz, inbertsio horiek aipatutako planeamenduaren ondorioz etorriko lirateke.

Dokumentuan bertan sartuta, aditzera eman du gastu eta sarreretan 8.195.315,59 euroko aurrekontua dela; sarreren diru iturriak honako hauek dira: zergak, eta horien artean adierazgarrienak ibilgailuen zerga, ondasun higiezinena eta obrei buruzko zerga; tasak, eta horietan garrantzitsuenak ura eta hondakin bilketa; transferentzia arruntak, horietan garrantzitsuena udal finantziaziorako foru fondoa; eta kapital transferentziak, jasotzen diren dirulaguntzak, gehienak Foru Aldunditik eta Eusko Jaurlaritzatik datozenak.
Esan du gainera diru sarrera horiek sail ezberdinetatik sortzen diren gastuak estaltzeko izaten direla, eta gainera

desastre porque la ley contempla también estas situaciones, con lo que se llama la prórroga del presupuesto del ejercicio anterior, que curiosamente arroja unos numeros mayores que el presupuesto que se presenta para su aprobación.
Sigue diciendo que es el primer presupuesto de este equipo de gobierno, y señala que han querido que el gasto no sea mayor que el ingreso y por tanto no incurrir en endeudamiento. Indica también que este presupueto refleja que el nuevo planeamiento urbanístico no está aprobado, dado que no hay grandes inversiones, que entiende vendrían de la mano de dicho planeamiento.

Entrando en el propio documento señala que es un presupuesto de gastos e ingresos de 8.195.315,59 €, los ingresos provienen de fuentes tales como los impuestos, de entre los cuales los más significativos son el de vehículos, bienes inmuebles y el impuesto de obras; las tasas , siendo de las más importantes el agua y la recogida de residuos; transferencias corrientes, siendo la más importante el fondo foral de financiación municipal; y transferencias de capital que son las diferents subvenciones que se reciben , en su mayor parte de Diputación Foral y de Gobierno Vasco.
Sigue diciendo que estos ingresos se destinan a cubrir gastos provenientes de los distintos departamentos,

pertsonal gastuak estaltzeko, horren kapituluak gora egin duelarik, hain zuzen ere hiru udaltzain berri kontratatu direlako, arkitektoaren dedikazio haundiagoa, gizarte zerbitzuetan beste langile bat, eta soldaten igoera KPIren arabera.

además de los gastos de personal cuyo capítulo se ha incrementado debido a la contratación de tres nuevos agentes de la policía municipal, la mayor dedicación del arquitecto, una persona más en servicios sociales, y el incremento en los salarios en función del IPC.

Gastuen egoera aztertzen jarraitzen baldin badugu, esan du horietatik zati oso garrantzitsu bat gizarte gastuetan gastatzen dela; gainera, mankomunita-teetarako ekarpenak gutxitu egin dira. Inbertsioen atalari dagokionez, behera egin du atal honek, planeamendu berriaren aurreikuspenen zain daudelako. Esan duenez, zenbateko batzuk badaude jarrita, zerbait jartzeagatik, eta zehaztasun gehiago dagoenean, bere ustez, orduan egin beharko da egin beharreko kreditu aldaketa.

Añade que si seguimos analizando el estado de gastos se puede comprobar que una parte muy importante del mismo se destina a gastos sociales, además se ha disminuido las aportaciones a mancomunidades. En cuanto al capítulo de inversiones , este se ha visto disminuido, dado que están a la espera de las previsiones del nuevo planeamiento. Dice que hay algunas cantidades que son un mero apunte y que entiende que cuando cuenten con mayor definición necesitarán de la oportuna modificación de créditos.

Azkenik, aditzera eman du 2007ko aurrekontua 8.052.355 eurokoa zela, eta kitapena 9.116.000 eurokoa; 2008rako aurkeztu duten aurrekontua, berriz, 8.195.316 eurokoa da.

Por último indica que el presupuesto de 2007 ascendía a 8.052.355€, su correspondiente liquidación a 9.116.000€, y el presupuesto para 2008 que se presenta para aprobación asciende a 8.195.316 €.

Zinegotzien txandari hasiera emanda, Martin jaunak eskatu du hitza, eta aditzera eman du ados dagoela gizarte zerbitzuen eta kulturaren sailei eskaintzen zaizkien diru atalekin, eta zalantzak dituela jaietan gastatzen denaren inguruan. Horri dagokionez

Iniciado el turno de intervenciones, pide la palabra el sr. Martín quien manifiesta que está de acuerdo con los capitulos destinados a servicios sociales y a cultura, teniendo dudas acerca de los que se gasta en fiestas. A este respecto indica que tras la explicación

aipatu du Garmendia batzordeburuaren azalpena entzun ondoren, ikusi dutela aurrekontuan jarri dena benetan gastatutakoari egokituta dagoela. Irakurketa hori eginda, baiezkoa emango diote aurrekontuari; bestalde, konturatu dira azpikontratazioak aurrekontuaren %20a direla, eta alde horretatik denek ezagutzen dute IU-Berdeak taldearen jarrera. Kaleko argiteriari dagokionez, gutxiago kutsatzen duten farola batzuk jarri diren arren, eta fluxua gutxitu bada ere, euren ustez heren bat gutxitu behar den gastua da hori. Era berean, gehiegizkoa iruditzen zaie lorazaintzarako erabiltzen den gastua, eta horrez gain, gastu hori ingurumenaren arloan agertzea eskatu zuten beraiek, baina hori ez da egin. Azkenik esan du ez daukala batere garbi nola landuko den auzoetarako irisgarritasunaren gaia. Horregatik guztiagatik aditzera eman du abstenitu egingo direla botazioan.

Agirre andreak eskatu du hitza eta aditzera eman du EAJ-PNV bere talde politikoaren ezezko botoa azaltzen ahaleginduko dela. Aditzera eman du dokumentu hau otsailean aurkeztutakoa bera dela, eta harrez geroztik gobernu taldea hedabideen aurrean agertu da Urretxurako nahi duten hirigintza planeamendua azalduz, Eguneko Zentrorako lizitazio berri baten deialdia onartu da, eta Auzolan programa jarri nahi da martxan; horiek guztiak ez dira

efectuada por el concejal del area sr. Garmendia ya han visto que lo que se ha reflejado en presupuesto es la acomodación de lo realmente gastado. Esta lectura les motivará a votar que sí al presupuesto, pero también han observado que las subcontrataciones suponen un 20% del prespuesto, y todos ya conocen la postura de IU-Berdeak al respecto. En el alumbrado público, a pesar de que se han sustituido algunas farolas por otras menos contaminantes, y de que se reduce el flujo, entienden que es un gasto que hay que reducir en un 1/3. También les parece excesivo el gasto destinado a jardinería, además de que solicitaron se contemplara ésta dentro de medio ambiente, cosa que no se ha hecho. Por útlimo señala que tampoco tiene claro como se va a trabajar la accesibilidad de los barrios. Por todo ello manifiesta que se abstendrá en la votación.

Pide la palabra la sra. Agirre quien manifiesta que tratará de explicar el voto en contra de su grupo político, PNV. Manifiesta que este documento es exactamente el mismo que el que se presentó en febrero, y desde entonces el equipo de gobierno ha aparecido en los medios explicando el planeamiento urbanístico que quieren para Urretxu, se ha aprobado la convocatoria de una nueva licitación para el Centro de Dia, y se pretende poner en marcha el programa Auzolan,

aurkeztu agiri honetan, eta hortaz uste dute ez dagoela egunean jarrita.

Jarraian esan du gaur egungo taldeak agintea hartu zuenean bost lan ildo ekarri zituztela, horietako bat bakearen alde lan egitea izan zelarik, nahiz eta esan zuten ez zela nahastu behar gestioa eta politika. Bere taldeak, EAJ-PNV taldeak, aditzera eman zuen orduan ere konpromisoa eskasa zela, eta orain ere gauza bera esaten dute. Gobernu taldeak aipatu zuen beste irizpide bat herritarren partaidetzarena izan zen; berak pertsonalki esan behar du legealdi honetan ez duela ezagutu; gainontzeko alderdiek egin dituzten proposamenetatik bakar bat ere ez da jaso aurrekontuen dokumentuan; gainontzeko talde politiko guztiek aurka azaldu ziren arren, komunikazio aholkulari bat kontratatu da, eta logotipo bat aukeratzeko lehiaketa planteatu da, gaia inork ezagutu gabe, kalean egin den publizitateagatik izan ezik. Aditzera eman du horri guztiari heritarren partaidetza deitzen zaiola.
Aurrekontuarekin sartuta aipatu du 300.000 euroko gastua dagoela, hain zuzen ere kontratazio batzuekin, esate baterako alkatearen arkitekto aholkulari pertsonala, komunikazio gaietarako aholkularia, alkate jaunaren soldata. Bere proposamena gastu hori kontrolatzen hastea da. Jarraian esan du inbertsioak %61 jaitsi direla, eta alde horretatik aditzera eman du egia dela

aspectos estos que no se contemplan en el documento que se presenta, por lo que entiende que el mismo no está actualizado.

Sigue diciendo que cuando el actual equipo entró a gobernar aportaron cinco citerios de trabajo, siendo uno de ellos trabajar para la paz, aunque dijeron que no había que mezclar gestión y política. Su grupo , el PNV ya dijo entonces que el compromiso al respecto era escaso, y siguen diciendo lo mismo. Otro criterio del que habló el actual equipo de gobierno era la participación ciudadana, ella personalmente tiene que decir que durante esta legislatura no la conoce, ninguna de las propuestas efectuadas por el resto de partidos ha sido recogida en el documento de presupuestos, a pesar de que el resto de grupos políticos se manifestó contrario se contrata unasesor de comunicación, y se plantea un concurso para seleccionar un logotipo sin que nadie conozca el tema exceto por la publicidad que se hace en la calle. Manifista que a todo esto se le llama participación ciudadana entrando ya en el propio Presupuesto dice que hay un gasto de 300.000 €, con una serie de contrataciones como el arquitecto asesor personal del alcalde, el asesor del alcade en materia de comunicación, el salario del sr. alcalde. Su propuesta es que se empiece por controlar ese gasto. Sigue diciendo

horietako batzuk eginda daudela, eta beste batzuk mantendu egiten direla, baina ez dutela ezertxo ere ikusten, ez lur industrialaren erosketarik, ez inolako egitasmorik, eta horregatik azalpen bat nahiko lukete.

que las inversiones han bajado un 61 % , a este respecto señala que es verdad que unas ya se han ejecutado, y que otras son mantenimiento, pero no ven absolutamente nada , ni adquisición de suelo industrial ni proyecto alguno, por todo ello les gustaría una explicación.

Ondoren Lete jaunak eskatu du hitza, eta aditzera eman du egin diren gauza batzuk zuzenak iruditzen zaizkiela, esate baterako %100eko lanaldia eta lizitazioaren aurrekontuaren jaitsiera kaleko garbiketari dagokion lehiaketan; Mugikortasun eta Trafiko Azterlana, Zumarragak errotondako gunea zabaldu zain baldin badaude ere; udaltzainen lanaldia asteburuetara zabaldu izana; kultura arloan, kirolean eta gizarte zebritzuetan egiten diren jarduerak. Hori guztia zuzena iruditzen zaie, baina balorazio negatiboa egiten dute inbertsioen kapitulua gutxitu izanagatik. Gogora ekarri du EA bere taldearen programan lur industrialari bultzada haundi bat ematea proposatzen zela, eta alde horretatik proposamen batzuk egin zituzten aurrekontu honetan jasoak izan zitezen; proposamen horiek ez dira kontuan izan, gobernu taldearen iritziz ez direlako egokiak izan. Nolanahi ere, EA taldearen iritziz lur industriala sortzea funtsezkoa da. Bestalde, aditzera eman du gainera, bere ustez, horrenbeste aholkulari kontratatzea planeamenduko AASSen berrikuspena geldiaraztearen ondorioa da, eta gogora

Seguidamente pide la palabra el sr. Lete, quien expone que algunas de las cosas que se han realizado les parecen correctas, como son la jornada del 100% y la rebaja en el presupuesto de licitación en el concurso de limpieza viaria; el Estudio de Movilidad y Trafico, aun cuando están a la espera de la apertura por Zumarraga de la zona de la rotonda; la ampliación de la jornada a los fines de semana de la policía municipal; las activiades que se llevan a cabo en cultura , deportes y servicios sociales. Todo esto les parece correcto, pero valoran negativamente la minoración en el capítulod e inversiones. Recuerda que el programa de su grupo, EA, planteaba un impluso importante al suelo industrial, y por tanto hicieron unas propuestas a este respecto para ser recogidas en este Presupuesto, propuestas que no se han tenido en cuenta por no parecer adecuadas para el equipo de gobierno.. No obstante EA sigue entendiendo que el la creación de suelo industrial es primordial. Por otra parte, señala también que, a su juicio, la

ekarri du EA taldea bakar-bakarrik geratu zela haien defentsa egiterakoan.

contratación de tanto asesor es consecuencia de la suspensión de la revisión de las NN.SS de planeamiento, y recuerda que EA se quedó solo en la defensa de las mismas.

Esan direnak entzun ondoren, eta horiei erantzuteko, alkate jaunak Martin jaunari esan dio aipatu dituen guztiak aitzakiak direla aurrekontua ez onartzeko.

El sr. alcalde en respuesta a las intervenciones realizadas, dice al sr. Martín que todo lo que ha manifestado le parecen excusas para no aprobar el presupuesto,

Agirre andreari eskerrak eman dizkio aurrrekontuaren inguruan egin duen azterketa sakonagatik, baina ez ikuspegi positibo batekin egina, baizik eta legealdi hasieran esan zuen bezala, beraiekin ezer ez partekatzeko. Jarraian esan du aholkularitzak gastuak direla, baina aurreko gobernu taldearengandik gauza negatiboak etorri zaizkielako, orain konpondu beharrekoak. Esan du gainera bere ustez aholkulariak beharrezkoak direla, iruditzen zaio Udal honek komunikatu egin behar duela, eta ondo egin behar duela gainera; uste du baita ere aholkulari finantziero bat behar dela, eta abokatutarako diru atal bat ere bai, batzuetan nahi ez diren ezustekoak suertatzen direlako. Uraren azterketa bat egitea ere beharrezkoa iruditzen zaio, eta zaborren kudeaketa hobea egiteako azterketa ere bai. Gogora ekarri du, Iparragirreren inguruan museo bat egiteko ideia zegoela, baina besterik ez; hori ere aztertu egin beharko da.

A la sra. Agirre le agradece el estudio exhaustivo que ha realizado del presupuesto presentado, pero realizado no con una visión positiva, sino tal y como ya dijo en el inicio de la legislatura, para no compartir nada con ellos. Sigue diciendo que las asesorias son gastos, pero porque han heredado cosas negativas del anterior equipo de gobierno que tiene que arreglar. Añade que los asesores los entiende necesarios, cree que este ayuntamiento se tiene que comunicar y tiene que hacerlo bien, además de creer también necesario un asesor financiero, y una partida destinada a abogados porque a veces se suceden imprevistos no deseados. También cree necesario realizar un estudio del agua, y un estudio para una mejor gestión de las basuras. Recuerda que respecto a Iparragirre había una idea de crear un museo pero nada más, habrá que estudiarla también. Dice

Esan du bere iritziz udalaren lokalak gutxi erabiltzen direla; adibide gisa, Ederrena pilotalekuaren azpian dauden lokalak, eta bestalde, Santa Barbara ere gutxi erabiltzen dela aisialdirako toki bezala. Aipatu du aztertu beharreko gauzak direla, eta aztertu egingo direla.
Era berean, aditzera eman du orain aurkeztutako dokumentua otsailean aurkeztutakoa berbera dela, baina hori dauden jarrerak ikusi ondoren gertatu dela, eta aipatu du bazegoela borondatea EAJ-PNV taldeak aurkeztutako proposamenak sartzeko, baina hala ere ezezko jarrera egongo zela ikusita, ez zen egin.

que, a su juicio, los locales municipales están infrautilizados, y pone de ejemplo los existentes bajo el frontón Ederrena, entendiendo también que Santa Barbara está infrautilizada como lugar de ocio. Indica que son cosas a estudiar, y que se van a estudiar.
Asimismo señala que efectivamente el documento presentado es el mismo que el de febrero, pero que esto es así tras haber visto las posturas existentes, y señala que había voluntad de integrar las propuestas presentadas por el PNV, pero viendo que a pesar de ello la postura sería negativa, no se hizo.

Lete jaunak adierazitakoari dagokionez, esan dio aitzakiak bilatzen ari direla uste duela, eta planeamendua aurrekontuarekin nahasten dutela. Planeamendua etorriko dela dio, baina ez dezala aurrekontuarekin nahastu; gainera esan dio ez dagoela beste ekarpen hoberik.

Respecto a lo manifestado por el sr. Lete, le dice que cree que están buscando excusas, y por ello confunden planeamiento con presupuesto. Dice que el planeamiento vendrá pero que no confunda con el presupuesto, además le indica que no hay ninguna aportación mejor.

Martin jaunak berriro eskatu du hitza, eta aipatu du gobernu taldeak ez badu musika aldatzen nola nahi duen gainontzekoek letra aldatzea.

El sr. Martín vuelve a pedir la palabra e indica que si el equipo de gobierno no cambia la música, cómo quiere que el resto cambie la letra.

Agirre andreak ere hitza eskatu du eta aditzera eman du abokatutarako gastua, bere lanbidea dela medio, ezagutzen duen gauza izanik, gehiegizkoa dela, izan ere urtean 24.000 € asko da, edo bestela, arazoa larria da. Esan du baita

También solicita la palabra la sra. Agirre quien indica que el gasto destinado a abogados, aspecto que por su profesión conoce, es excesivo, ya que 24.000 € anuales es mucho o el asunto, vease problema, es grave.

ere aurrekontuaz hitz egin zen bilera betan adierazi zutela zuzenak iruditzen zaizkiela Merkagune programa, Wifi instalatzea, gaztegunea eta beste proiektu txiki batzuk, baina esan zuten baita ere euren ustez egiten ari zen gestioa zela ondo ez zegoena.

Tambien señala que en una reunión en la que se trató el presupuesto ya manifestaron que les parecía correcto el programa Merkagune, la instalación de Wifi, el gaztegune, y otras serie de pequeños proyectos, pero también dijeron que lo que les parecía que no estaba bien era la gestión que se estaba llevando a cabo.

Jarraian esan du otsailean egindako bilera batean esan zela EAJ-PNV alderdiak aurkeztutako bi proposamenak aztertu egingo zirela, eta autobusa mugikortasun eta trafiko arloan sartuko zela; alde horretatik ez daki zer egin den. Une hartan esan zuten baita ere aholkularitza batzuk soberan daudela eta gehiegizkoak direla, eta horrez gain ez zaiela zuzena iruditzen beti aholkulari bera izatea. Horregatik guztiagatik, ez zeuden ados, eta orain ere ez datoz bat aurrera eramaten ari den gestioarekin. Bestalde, ez daude ura edo hondakinen gestioari buruzko azterlan bat egitearen aurka.

Sigue diciendo que en reunión mantenida en febrero, se dijo que las dos propuestas presentadas por el PNV se estudiarían y el bus se incluiría en materia de movilidad y tráfico, desconoce que se ha hecho a este respecto. En aquel momento también dijeron que algunas de las asesorías están de más y son excesivas, además de que no les parece correcto que siempre sea la misma asesoría. Por ello no estaban ni están de acuerdo en la gestión que se está llevando a cabo. Con lo que no están en desacuerdo es de que se estudie el agua , la gestión de los residuos, etc.

Lizarraga jaunak eskatu du hitza eta aditzera eman du ikasi eta aztertu egin behar dela esan dela hemen; bere taldeak aztertu egin zuen hauteskundeetara aurkeztu zenean, baina herriak ez zion hitzik eman, eta ezin izan du bere proiektua planteatu. Esan du gainera, zentzuz proposatutakoa iruditzen zaienari ez diotela aurka egingo, ezta oztoporik jarriko ere, eta horrela egin dute legealdi honetan; baina baita ere esango dute

Pide la palabra el sr. Lizarraga quien dice que se ha dicho que hay que aprender y estudiar, y que su grupo cuando se presentó a las elecciones estudió, pero el pueblo no le dió la voz y no ha podido plantear su proyecto. Sigue diciendo que a aquello que les parece planteado con sentido común no se opondrán, ni obstaculizarán, y así lop han venido haciendo durante esta legislatura, pero también dirán cuando les parece que el equipo de

iruditzen zaienean gobernu taldeak ez dakiela nora eraman herri hau, edo norantz doazen gustatzen ez zaienean. Aiaptu du EA taldearentzako oso garrantzitsuak direla inbertsioak, eta aurrekontu honetan asko jaitsi direla. Esan du baita ere ez dela egia ideiarik ekarri ez zutela, eta aipatu du badagoela datu bat dioena desoreka haundi bat dagoela; lo egiteko hiri bat sortzen ari gara, eta ez ekoizteko; beraz, uste du azken lan horretarako diru partidak aurreikusi behar direla. Bere iritziz aukera haundi bat izan da, eta oraindik ere bada aukera hori; beraiek badakite zein den. Gogora ekarri du baita ere Urretxuko biztanleriaren erdiak mugitu egin behar duela lanera joateko, eta alde horretatik uste dute utzikeria dagoela, eta euren iritzian desoreka hori zuzendu egin behar da.

gobierno no sabe hacia dónde llevar a este pueblo, o cuando no les gusta hacia dónde se le lleva. Señala que para EA es muy importante las inversiones y esta en este presupuesto han bajado de forma muy importante. También dice que no es verdad que no aportaron ideas, e indica que hay un dato cual es que hay un gran desequilibrio, estamos creando una ciudad para domir y no para producir, por lo que cree que hay que recoger partidas de gastos para este último menester. Sigue diciendo que a su juicio, ha habido una gran oportunidad, y que todavía la hay, oportunidad que ya saben cuál es. También recuerda que la mitad de la población de Urretxu se tiene que desplazar para trabajar por lo que creen que Urretxu, en este aspecto, se está descuidando y entienden que hay que rectificar este desequilibrio.

Alkate jaunak berriro dio gaur ez dela planeamenduari buruz hitz egiten; horregatik EA taldeari eskatzen dio urduri ez jartzeko, eta ez ditzatela gaiak nahastu. Esan du gainera eskualdean plan estrategiko bat egiten ari dela, eta AASSei buruz hitz egiteko eta Urretxurako nahi dutena azaltzeko garaia ere iritsiko da. Esan du gainera bilatzeko prest daudela EA taldearekin eta gainontzekoekin, baina ez denbora galtzeko jarrera batzuen arabera. Ekarpenik baldin badute egin dezatela, eta euren kudeaketa modua gustatzen

El sr. alcalde vuelve a decir que hoy no se está tratando planeamiento, por lo que solicita a EA que no se ponga nervioso y no mezclen los asuntos, Añade que en la comarca se está elaborando un plan estratégico, y también vendrá el momento de hablar de las NN.SS, y de lo que ellos quieren para Urretxu. Añade que están en disposición de buscar con EA y con el resto, pero no lo están para perder el tiempo según y con qué posturas. Si tienen aportaciones que las hagan, y si no les gusta su forma de gestionar no

ez bazaie ezin dute beste ezer egin.

Lete jaunak alkate jaunari esan dio gauza ez dela berak kontatzen duen moduan, eta ez dezala urduritasuna juzgatu. Gogora ekarri dio baita ere esan zuela sei hilabeteko epean onartuta egongo zela planeamendua, eta ez da horrela izan. Era berean, gogora ekarri dio aldatu egin dela legealdi hasierako eszenatoki politikoa, eta denok dakigu zer gertatu den eta zergatik. Urduritasuna bakoitzak berea izango du, eta bakoitzak garbitu beharko dituela trapuak bere etxean.

Eztabaida amaituta, eta gaia botoetara eramanda, 4 boto eman dira baiezkoak (alkate jaunarena, eta Garmendia, Beloki eta Ostiza zinegotziena), 8 boto aurkakoak (Lete, Lizarraga, Mendia, Zabaleta, Cantero, Pastor, Agirre eta Errazu zinegotziena) eta abstentzio bat (Martin jaunarena); horrenbestez:

Ez zaio onarpenik eman 2008ko Aurrekontu Orokorraren proiektuari, ez Aurrekontuaren Exekuzio Arauari, ezta Plantila Organikoari eta Lanpostu Zerrendari ere.

**4.- Lankidetza hitzarmena: tokiko Agenda 21ean Udala-Enpresa ekintza planak egiteko**

Alkate jaunak azaldu duenez, Ihobe,

puede hacer otra cosa.

El sr. Lete le dice al sr. alcalde que el asunto no es como él lo cuenta, y que no juzgue el nerviosismo También le recuerda que dijo que en el plazo de seis meses estaría aprobado el planeamiento, y no ha sido así, ni es así. Tambien le recuerda que ha cambiado el escenario político del principio de legislatura y todos sabemos lo que ha pasado y por qué. Añade que los nervios tendrán cada uno los suyos y que cada uno tendrá que limpiar sus trapos en su propia casa.

Finalizado el debate , y sometido el asunto a votación, al emitirse 4 votos a favor ( sr. alcalde, y los ediles sr@s Garmendia, Beloki, y Ostiza) , 8 votos en contra ( sr@s Lete, Lizarraga, Mendia, Zabaleta, Cantero, Pastor, Agirre eta Errazu), y 1 abstención ( sr. Martín):

**Unico.-** No se otorga aprobación al proyecto de Presupuesto General 2008, la Norma de Ejecución Prespuestaria, y a las correspondientes Plantilla Orgánica y Relación de Puestos de Trabajo.

**4.- Convenio de colaboración de planes de Acción, Ayuntamiento-Empresa en Agenda Local 21**

El sr. alcalde expone que se trata de

Uggasa eta Mankomunitateko lau udalen arteko lankidetza hitzarmena da, eta bere helburua Udala-enpresa ekintza planak egitea, beti ere Agenda 21en markoaren barruan.

Azalpena amaitu, eta eztabaidari hasiera emanda, Lete jaunak eskatu du hitza, eta aditzera eman du oraingo hau urrats bat dela, aurreko puntuan aipatu den lur industrialaren inguruan lanean hasteko.

Zabaleta andreak adierazi du batzarraldiaren hasieran azaldu duela PSE-EE taldearen aurkako jarrera batzarraldi honetako gai-zerrendako puntu guztietan.

Gai honek dagokion batzorde informatiboaren irizpenik jaso ez duenez, eta AJA Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren 82.3 artikuluaren arabera, aho batez berretsi da eguneko gai-zerrendan sartzea; botoetara eramanda, aldeko botoa eman dute alkate jaunak eta Garmendia, Beloki, Ostiza, Lete, Lizarraga, Mendia, Agirre, Errazu eta Martin zinegotziek, 10 boto guztira, eta Zabaleta, Cantero eta Pastor zinegotziek ( 3 boto ) aurkakoa eman dute; honenbestez, hauxe erabaki da:

**Lehenengo.-** Udalsarea 21, Ihobe, S.A., Uggasa, Ugisa eta Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako udalen arteko lankidetza hitzarmena

un Convenio de colaboración entre Ihobe, Uggasa y los cuatro Ayuntamientos de la Mancomunidad cuyo objeto es elaborar los planes de acción Ayuntamiento-empresa en el marco de la Agenda 21.

Finalizada la exposición e iniciado el turno de debate, pide la palabra el sr. Lete quien indica que este es un paso para empezar a trabajar en lo expuesto en el punto anterior referente a l suelo industrial.

La sra. Zabaleta indica que ya ha manifestado al inicio de la sesión, la postura contraria de su grupo, PSE-EE, a todos los puntos del orden del día de la presente sesión.

No habiendo sido este asunto dictaminado por la Comisión Informativa correspondiente, en virtud del art. 82.3 del ROF, se ratifica por unanimidad su inclusión en el Orden del día., y sometido a votación,,con los votos a favor del Sr. Alcalde y de los Sr@s. Garmendia, Beloki, Ostiza, Lete, Lizarraga, Mendia, Agirre, Errazu y Martin (10 votos) y los votos en contra de los Sr@s. Zabaleta, Cantero y Pastor se acuerda:

**Primero.-** Aprobar el convenio de colaboración entre Udalsarea 21, Ihobe S.A, Uggasa, Ugisa, y los ayuntamientos de Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu y Zumarraga para la

onartzea, hain zuzen ere Agenda 21en barruko udala-enpresa ekintza planak egiteko proiektuan parte hartzeko.

participación en el proyecto de elaboración de planes de acción ayuntamiento-empresa en la Agenda Local 21.

**Bigarren.-** Joan zen maiatzaren 5ean hitzarmen honi emandako sinadura berrestea.

**Segundo**.- Ratificar la firma de dicho convenio efectuada el 5 de mayo pasado.

**5.- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Urola Garaiko "Lanbide"ren arteko lankidetza protokoloa: Onespena**

**5.- Protocolo de colaboracióp n entre los Servicios Sociales de Base y "Lanbide" Urola Garaia: Aprobación**

Gizarte Ekimeneko Batzordeak aurkeztutako proposamenaren berri eman da, hain zuzen ere udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuaren eta Urola Garaiko lanbide orientaziorako (Lanbide) zerbitzuen arteko lankidetza protokoloa onartzeko, bien arteko koordinazioa hobetzeko, eta baztertze egoeran dauden pertsonak lanbidean sartzeko bidea errazteko.

Se da cuenta de la propuesta presentada por la Comisión de Acción Social para la aprobación del Protocolo de colaboración entre el servicio social de base municipal y los servicios de orientación de empleo ( Lanbide) de Urola Garaia para la mejor coordinación entre ambos, en aras de la incorporación socio.laboral de las personas en situación de exclusión.

Eztabaida amaituta, gaia botoetara eraman da, aldeko botoa eman dute alkate jaunak eta Garmendia, Beloki, Ostiza, Lete, Lizarraga, Mendia, Agirre, Errazu eta Martin zinegotziek, 10 boto guztira, eta Zabaleta, Cantero eta Pastor zinegotziek ( 3 boto ) aurkakoa eman dute; honenbestez, hauxe erabaki da:

Sometido el asunto a votación, con los votos a favor del Sr. Alcalde y de los Sr@s. Garmendia, Beloki, Ostiza, Lete, Lizarraga, Mendia, Agirre, Errazu y Martin (10 votos) y los votos en contra de los Sr@s. Zabaleta, Cantero y Pastor ( 3 votos) se acuerda:

**Lehenengo.-** Oinarrizko Gizarte

**Primero.-** Aprobar el protocolo de

Zerbitzuaren eta Urola Garaiko "Lanbide" lankidetzarekin protokoloa onartzea, bien arteko koordinazioa hobetzeko.

**Bigarren.-** Beharrezko dokumentu guztiak sinatu ahal izateko ahalmena ematea alkate jaunari.

colaboración entre los Servicios Sociales de Base municipales y "Lanbide" Urola Garaia para la mejor coordinación entre ambos

**Segundo**.- Facultar al Sr.Alcalde para la firma de cuantos documentos sean precisos al efecto.

**6.- Kuadrilentzako lokalak arautzeko ordenantza: lehen onespena**

Alkate jaunak aditzera eman du ordenantza proiektu hau aurkeztu dela gazteek erabiltzen dituzten lokalak modu inkontrolatuan ugaritu direla, eta arazoak sorrarazten ari direla; bere ustez hori kontrolatzeko obligazioa dago, ez bakarrik segurtasun eta osasun mailari dagokionez, baizik eta baita bizilagunekiko bizikidetasunari dagokionean ere. Esan du gainera, ordenantza hau araudia den aldetik, baldintzatu egiten duela aipatutako lokal horien erabilera eta baldintza jakin batzuk ezartzen dizkietela. Nolanahi ere, esan du bere ustez Udal honek plan bat prestatu beharko lukeela gazteen aisialdiari begira; horrenbestez, konpromiso bat hartu nahiko luke Zumarragarekin batera gai honi heltzeko, eta gazteen aisialdirako egitasmo bateratu bat lortu ahal izateko.

Zinegotzien txandari hasiera emanda,

**6.- Ordenanza reguladora de los locales para cuadrillas: Aprobación inicial**

El sr. alcalde indica que se presenta este proyecto de ordenanza porque está proliferando la aparición de locales usados por jóvenes de forma incontrolada que están originando problemas, y entiende hay obligación de controlar los mismos, no solo a nivel de seguridad y salubridad de los mismos, sino también a nivel de convivencia con los vecinos. Añade que como normativa que es el presente reglamento u ordenanza, condiciona el uso de dichos locales y los somete a una serie de requisitos. No obstante, señala que a su juicio, este Ayuntamiento también debería elaborar un plan de cara al ocio juvenil, por lo que le gustaría adoptar un compromiso para conjuntamente con Zumarraga se afrontara el asunto y se consiguiera un proyecto conjunto de ocio juvenil.

Martin jaunak ados dagoela azaldu du.

Iniciado el turno de intervenciones, el sr,. Martín manifiesta su acuerdo.

Jarraian, Agirre andreak hartu du hitza, eta gogora ekarri du Foru Aldundiak egin zuela egitasmo bat gaztediarentzako; hortaz, alkate jaunak aipatu duen azterlanari hasiera ematea proposatu du, Diputazioak egindako azterketatik abiatuta. Ordenantzari dagokionez esan du ona eta beharrezkoa ikusten dutela, baina uste du komenigarria dela gai hau gazteei azaltzea.

Seguidamente pide la palabra la sra. Agirre , quien recuerda que Diputación Foral elaboró un proyecto de cara a la juventud, por lo que propone se inicie el estudio al que ha aludido el sr. alcalde partiendo del análisis del elaborado por Diputación. Respecto a la ordenanza, señala que la entienden buena y necesaria, aunque cree conveniente que se explique este asuntos a los jóvenes.

Lizarraga jaunak hitza hartu eta aditzera eman du, lehen esan duen bezala, zentzuzkotzat jotzen dena ondo dagoela, baina Agirre andreak adierazi duen bezala, ona eta beharrezkoa izango litzateke gazteei azaltzea, hain zuzen ere inposatutakoa ez delako gustukoa izaten.

El sr. Lizarraga pide la palabra y señala que tal y como antes ha manifestado, lo que se entiende de sentido común, está bien, pero tal y como ha dicho la sra. Agirre sería bueno y necesario se explicara a los jóvenes, porque lo que se impone no suele gustar.

Alkate jaunak aditzera eman du Agirre andreak azaldutakoa egin beharreko lana dela, eta bere ustez hurrengo pausua izango litzateke, baina bere iritzian gazteei baino gehiago lokalen jabeei esan behar zaie, orden baten barruan jar ditzaten.

El sr. alcalde manifiesta que lo expuesto por la sra. Agirre efectivamente es una labor a hacer y la entiende como el siguiente paso, pero a su juicio más que a los jóvenes se tiene que dirigir a los propietarios de los locales para que los pongan en orden.

Obra, Zerbitzu, Mugikortasun eta Trafiko Batzordearen irizpena kontuan izanik, eta gaia botoetara eramanda, aldeko botoa eman dute alkate jaunak eta Garmendia, Beloki, Ostiza, Lete,

Considerando el dictamen de la Comisión de Obras, Servicios, Movilidad y Tráfico, y sometido el asunto a votación , con los votos a favor del Sr. Alcalde y de los Sr@s.

Lizarraga, Mendia, Agirre, Errazu eta Martin zinegotziek, 10 boto guztira, eta Zabaleta, Cantero eta Pastor zinegotziek ( 3 boto ) aurkakoa eman dute; honenbestez, hauxe erabaki da:

**Lehenengo.-** Kuadrilentzako lokalak arautzeko ordenantza onartzea.

**Bigarren.-** Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 49 b) artikulua betetzeko, jendaurrean azaldu erabaki hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz hogeita hamar eguneko epean, beti ere erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Epe hori igaro eta erreklamaziorik ez bada, behin-betiko hartuko da onespena.

**Hirugarren.-** Konpromisoa hartzea gaztediarentzako aisialdi plan bat egiteko azterlanari hasiera emateko.

Eta beste gairik izan gabe, amaiera eman zaio batzarrari, akta honen hasieran adierazten den eguneko bederatziak hamar gutxi direnean, eta nik, Idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.

Garmendia, Beloki, Ostiza, Lete, Lizarraga, Mendia, Agirre, Errazu y Martin (10 votos) y los votos en contra de los Sr@s. Zabaleta, Cantero y Pastor ( 3 votos) se acuerda:

**Primero.-** Aprobar la ordenanza reguladora de los locales para cuadrillas .

**Segundo.-** En cumplimiento del art. 49 b) de la Ley reguladora de Bases de Regimen Local, someter este acuerdo a información publica mediante la publicación durante treinta días de anuncio en el Boletin Oficial de Gipuzkoa para la presentación de reclamaciones y sugerencias.
Transcurrido este plazo sin producirse reclamaciones, la aprobación devendrá definitiva

**Tercero.-** Adoptar compromiso para iniciar un estudio de cara a la elaboración de un plan de ocio juvenil.

Y no habiendo más asuntos que tratar se da por finalizada la presente sesión, siendo las veinte horas cincuenta minutos del día que encabeza la presente acta, de todo lo cual doy fe